

BALOREZKO PROPOSAMENA:

BERDIE S.L –en balorezko proposamen nagusia mundi berri bat lortzea da, plastikorik gabeko produktuak erabiltzea izango delarik. Eguneroko etxeko martxan beharrezko ez diren plastikoak baztertzeko proposamenak herriari eskainiko dizkiogu. Produktuak saltzeaz gain, planetarekiko dugun ardura eta ikusten dugun beharra mundu iraunkorrago bat sustatzeko filosofia bezeroei transmititzea eta herrian zabaltzea da.

Gizakiok urtean 300 miloi tona hondakin sortzen ditugu gutxi gorabehera, eta honek eragin zuzena du gure planetarentzat eta bertan bizi garen guztiontzat. Egoera hau hobetze aldera apustu berritzaile bat egin dugu PRODUKTU EKOLOGIKO ETA PLASTIKORIK GABEKO denda, bizi garen mundo hobetua izateko.

Gure dendako produktuak kalitate bikainekoak dira. Badakigu denda eta supermerkatu ugari daudela herrian (Mercadona, BM, bi Eroski) baina ez dago plastikorik gabeko dendarik; horregatik erabaki dugu apustu berritzaile hau aurrera eramatea. Diseinu desbedinekin egin ditugu gure produktuak; Adibidez, elikagaiak (babarrunak esaterako) kristalezko bote erraldoietan salduko dira, bakoitzak nahi duen kantitatea har dezan.

